PORRONTXO JAIAK 1997



IRAILAK 17, 18, 19, 20 eta 21 Egia

"ATORRANTE X" AGIRIA

IZENA:PORRONTXO FENOMENOA.

JATORRIA: EGIA. Donostiaren ekialdera, kilometro batetara dagoen auzo lotsagabe eta zaratatsua.

ADINA: aurten 16 urte.

LEHENAGOKO HAMABOST URTEOTAN PORRONTXOEK EGINDAKO DELITUAK: iraileko bost egunetan zehar, Egia osoa hankaz gora jartzen dute.Egun beldurgarri hauetan, badirudi egiatar denak zoratu egiten direla. Egiten dituzten gauzak ez baitira burutik sano dagoen inork egiteko modukoak. Hona hemen zoroaldi horren zenbait agerpen:

- Donostiar txukun eta ponpoxoen jantzi dotoreak alde batera utzi eta mila koloretako blusa zatar eta baldarrak jazten dituzte (bost egunetan zehar,eta inon den zikin guztia itsatsi arren,gainetik kenduko ez dituzten blusak).

- Pisu altuetako bizilagunek "ur-ing" deituriko kirol berria praktikatzen dute. Eta, behean bustitako egiatar-zoroak ez dira kexatzen. Alderantziz, badirudi gustatu egiten zaiela.

- Ohitura onek agindu bezala,"bakoitzak berea"egin beharrean, egiatarrak elkarrengana bildu egiten dira. Eta guztiek parte hartuz"ATORRANTE X" fenomeno beldurgarria gorpuztuz joaten da.

- Kaleak (guztiok dakigun bezala autoen joanetorrietarako eginak) auzotarrek betetzen dituzte.Eta horretarako edozein aitzakiaz baliatzen dira:berdin da txaranga zein trikitixa, goitibehera zein bizikleta, dantza zein manifa...Edozer dela ere, kaleek beraien ohiko bake eta lasaitasun galtzen dute.

- Oso gauza arraroak gertatzen dira PORRONTXO horien erruz:gazteak, inoiz ez bezala,egunkari eta kroasanak erosteaz arduratzen dira;aiton-amonak gaztetu egiten dira;haurrak protagonista bihurtzen dira...Eta hori guztia gutxi balitz bezala,tabernetako orduraliak gelditu egiten dira.

Zerrenda amaigabea izan liteke,baina guztia honako esaldian laburbiltzen da:

ADI!! PORRONTXO FENOMENOA OSO ARRISKUTSUA DA

ETA GAINERA BADIRUDI KONTAJIOSOA DELA

PORRONTXO FENOMENOAREN AZALPEN POSIBLEAK: zaila da zinez eromen kolektibo horren arrazoi maltzurrak zeintzuk izan daitezkeen jakitea.Dakigun bakarra zera da: egiatarren defentsan edozein arlotan lanean diharduten izpiritu bera igertzen zaiela jai madarikatuoi. Kultur etxearen alde, Ikastolaren inguruan, Polikiroldegiaren alde, Euskara zuzpertuz, etxebizitzaren arazoiari aurre eginez, presoen giza eskubideen defentsan...arazo guzti horien atzean igerri daitekeen kirats nazkagarri berbera darie Porrontxoei ere.Esan bezala, oso arriskutsua.

AURTENGORAKO AURRIKUSPENA:tamalez,aurten ere "ATORRANTE X" fenomenoa laster iritsiko da. Eta berriro ere, PORRONTXOEK hankaz gora jarriko dute Egiako normalitatea. Eta ez dago jaia geldituko duen kristaurik. Jada entzuten ditut turuta hotsak, txaranga, ohiuak, kantak...Ajj! Ezin dugu! Ez dago Porrontxoei aurre egingo dienik!!

Ikusi dezakezutenez, zenbaitek ez daukate oso eritzi ona Porrontxoen inguruan baina tira, zer egingo diogu??
Beraientzat kalte.
Direnak direlakoan, gure gonbitea haur, gazte, heldu nahiz aiton-amona izan, honako hau da; Blusa hartu eta atera gaitezen denok kalera, kanta, dantza, eta goza gure **PORRONTXOAK!!**

ONDO IZAN.

Como se puede comprobar algunos no tienen muy buena opinión entorno a los Porrontxos. ¿Que le vamos a hacer?. ¡¡El@s se lo pierden!!
De todos modos dispongamonos a disfrutar de las fiestas. Salgamos tod@s a la calle, bailemos, cantemos y gocemos de los **PORRONTXOS**

¡PASARLO BIEN!

Aupa Egiatarrok! !

Aurten ere hemen gaude, blusak jantzita, pronto, gure Porrontxo ietaz harro-harro, ekarri duten eta ekarriko duten lanaz harro, baina an hori guztion artean egitea beti hobe izango dela ziur. Begira. Begi- a ezazu zure etxea eta ez zaitez izan galtzaundia: ez al litzateke askoz obe guztiok sortzen dugun zikinkeriaren, jaten ditugun jakien, egin ehar ditugun erosketen eta gainerako lanen aurrean elkartzea, lan auek ere guztion artean banatzea. Etxeko andrearen irudia ezabatuko ugu horrela eta Mari Jaiak hartuko du haren lekua.

Eta zuk, neska, kontuan izan jaia zurea ere badela, zuk ere egi- en duzula jaia eta gozatzen duzula jaiarekin. Eta gauez zein egunez biltzen bazara, askoz hobe. Tira, beraz, atera kalera!

Zuek, berriz, ez iezaizuela horretarako eragozpenik jarri. Ezetz! rriskua ez dagoela kalean, baizik eta "erdiko hanka" horrekin pent- atzen duten horiengan. Aurrera! etxean geldituta ez ditugu erasoak kidingo, eta ez dugu jairik izango. Nazkaturik gaude etxezuloaz eta lkolaren aitzakiez!

Jantzi ezazu blusa eta aide kalera!

Onenak diren jai hauek are hobeak izan daitezkelako, ondo asau eta aurrera.

LARUNBATA, 13

11:00 - **Haurrentzako joku-talerrak** Plaza Berrin.

12:00 - **kuadrilen kalejira.ALKORTA ANAI-ARREBA eta auzoko Trikitilari GAZTE TALDEAREKIN, GAZTE LOKALEKO ANIMAZIO TALDEA lagunduta**.(Hasiera eta amaiera P.Berrin izango da).

14:30 - **Bazkaria** Plaza Berrin.
Koadrila bakoitzak bere bazkaria eramango du.

16:30 - **Bertso saioa eta ALKORTA ANAI-ARREBAREN TRIKITIXA emanaldiarekin jai egunaren amaiera.**

ASTEAZKENA, 17

19:00 - **Buruhaundi eta erraldoiak KILIKARIAK eta TA PUNTO txarangekin.**

19:30 - **Koadrilen karrotxo politenaren aukeraketa.** (Jeitsiera hasten den lekuan).

20:00 - Suziri eta Porrontxoen jeitsierarekin **Jaien hasiera.**

20:00 - **Koadrilen Jeitsiera KILIKARIAK eta TAPUNTO txarangekin** Karmengo Ama kalean zehar.

22:00 - **Dultze meneoa TRAKETS** taldearekin.

23:30 - **Karaoke jokoa** txoznen gunean.

23:30- **JATORRENAK txaranga**.

00:30 - ***Banana dantza* jokoa Plaza Haundin**.Soka Saltoa atsedenaldi batean.

OSTEGUNA, 18

13:30 - Jeiki eta berrindartu nahi duenarentzat,**kuadrilek antolatuta,Parrrilada P.Haundin.**

18:00 - **Buruhandi eta erraldoiak IZENGABEAK txarangarekin.**

18:30 - **Haur jeitsiera IZENGABEAK txarangarekin** Karmengo Ama kalean zehar.

19:30 - Plaza Berrin **haurrentzako dantzaldia AZKONA taldearekin.**

19:31 - KILIKARIAK Txaranga
20:00 - *Futbola erratzekin* koadrilentzako jokoa Plaza Haundin, **TTan-ttakun auzoko irratiaren animazioarekin.**
22:00 - KANTAURI txaranga.
22:02 - Dantzaldia Iratxo taldearekin.
23:00 - Kontzertua txoznen gunean auzoko taldeak diren **Ttak eta Santos Inocentes.**
00:30 - *Puzgarrien jokoa* Plaza Haundin.
Soka saltoa atsedenaldi batean.

OSTIRALA, 19

12:00 Haurrentzako giñola BIHAR taldearekin Plaza Berrin.
12:30 ALKORTA ANAI-ARREBA eta AUZOKO TRIKITILARI GAZTE TALDEAK auzoa alaituko dute.GAZTE LOKALEKO ANIMAZIO TALDEA lagunduta.
13:30 Gastronomi lehiaketa Plaza Berrin.
17:00 Haur jokoak, Plaza Haundin.
18:30 Buruhandi eta erraldoiak. JATORRENAK txarangarekin.

19:30 Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.
20:30 *Futbolina pertsonekin* kuadrilen arteko jokoa Plaza Haundin,**Ttan-ttakun auzoko irratiaren animazioarekin.**
21:00 Antzerkia Txosnen gunean:"Rompan filas" antzezlana **KLOW ART taldearekin** eta "El Komplot" antzezlana (Alex De La Iglesiaren idazlana) **YU-YU taldearekin.**
23:30 Dultze meneoa IZOTZ taldearekin.
00:30 *Soka Tira* jokoa Plaza Haundin.
02:00 - MOZOLOAK txaranga.
05:00 Baratxuri Zopa Arranoko kalestuan.

LARUNBATA, 20

PRESO, ERREFUXIATU ETA DEPORTATUEN EGUNA
09:00 Diana ORERETAKO DULTZAINARIEKIN.

ERROMERIA



17:00 Koadrilentzako jokoak. *Herri Kirolak.*

18:30 EUSKAL DANTZAK Plaza Haundin GOIZALDI taldearekin.

19:30 Sardinada XABIER SUKIA, EUSEBIO LASARTE ETA IBAI ESOAIN bertsolariekin eta jokutako koadrila irabazleen zerrenda pasa eta **saritxoen banaketa.**

20:00 Jaialdia TRIKI-TAKE taldearekin Plaza Haundin

21:00 MOZOLOAK txaranga.

22:00 Kuadrilen kalejira auzoan zehar.

23:00 Azken traka, Porrontxinoaren erreketa eta jaien amaiera.

Ttan-ttakun, auzoko irratiaren programazio berezia izango dugu jai egunetan zehar. Baita ospatuko diren joku eta ekitaldi desberdinetan izango dira ere.

EZ APARKATU (P) NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos/as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

TEJERIAN: Kale honetako goiko, aldea ostirala arratsaldetik larunbata gaua arte (koadrilen afaria, dela eta).

En la parte alta de la calle a partir del viernes a la tarde hasta el sábado a la noche (por la cena de cuadrillas).

TEJERIA ETA KARMENGO AMAN: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan kronoeskalada.

Viernes ala tarde en doble fila por la cronoescalada.

10:00 Gladys Enea parkean haurrentzako txokolatada eta haur jokoak AMALUR Taldearekin: gazteluak. motorrak.....

10:00 Bertako produktuen azoka Plaza Haundin INTXAURRONDO ESKOLAKO TRIKITILARIAK alaituta.

16:00 Mus txapelketaren finalak Arrano Elkartean.

16:30 Txokolatada eta kafea kuadrilentzako Plaza Haundin.

17:00 Kuadrilentzako jokoak:boleibol txapelketa.Ttan-ttakun auzoko irratiaren animazioarekin.

17:01 MOZOLOAK txaranga

18:00 SEPTETO SANTIAGUERO TALDE KUBATARRAREKIN jaialdi-dantzaldia Plaza Haundin. Artisau,liburu eta bertako produktuen erakuseketa eta azoka izango da.(Elkartrukaketa kultural ekitaldia Kubako herriarekin).

21:30 Koadrilen afaria EZTANGA ANAI-ARREBAREN trikitixarekin alaituta

23:00 Dantzaldia ETZAKIT taldearekin Plaza Haundin.

24:00 Amnistiaren aldeko kalejira.

24:00-KILIKARIAK txaranga.

01:30 EZTANGA ANAI-ARREBAREN TRIKITIXA txoznen gunean.

01:30-Ttuntturroen kalejira auzoan zehar.

02:00 -TA PUNTO txaranga.

IGANDEA, 21

07:00 Kuadrilentzako gosaria oilaskoekin, Plaza Haundin.

07:30 KANTAURI txaranga.

08:00 Batelak Urumea Ibaian (bertarainoko jeitsiera KANTAURI txarangarekin)

10:30 Diana ORERETAKO DULTZAINARIEKIN.

11:00 Esku Pilota txapelketako finala.Plaza Haundiko frontoian.

12:00 Jotak AIRES NAVARROS taldearekin Plaza Berrin.

13:00 Sagardo dastaketa INTXAURRONDO ESKOLAKO TRIKITILARIAK alaituta. Plaza Berrin.

14:30 Bazkari herrikoia Plaza Haundin.

PORRONTXO
JAIAK
1997
EGIA
IRAILAK
17 18 20

PORRONTXO JAIAK'97
IRAILAK 17,18,19,
20 eta 21
egia


PORRONTXO
JAIAK

PORRONTXO JAIAK'97
Irailak
17, 18, 19, 20, 21
EGIA